

## Gorka Amatria eta Aitor Pulponek irabazi dute aurtengo ‘XXIII. Erreportari Gaztea Saria’

**2021 urteko lehiaketan Andoaingo zein inguruko herrietako 60 gaztetxok hartu dute parte eta guztira 25 idazlan aurkeztu dituzte.**

Pandemiak ezinbestean behartutako etenaren ostean, Andoaingo Udaleko Euskara sailak urtero ematen dituen *Erreportari Gaztea Saria* itzuli dira. Aurtengo edizioan, 23a hain zuzen, La Salle-Berrozpe Ikastetxeko **Gorka Amatria** eta **Aitor Pulpon** izan dira saritu nagusiak. Bikote honek eskuratu du, hortaz, 360 euroko diru saria eta Xabier Laka artistaren oroigarria. Lan irabazleak “*Twitch*” izenburua du, sare sozial berriaren eta honek eragin duen iraultza digitalari buruzkoa da.

Saridun nagusi hauekin batera, beste bi aipamen berezi egin dira, Aita Larramendi ikastetxetik **Markel Rabadanek** eta **Eñaut Landak** jaso dute saria “*Robotika industrial: onura ala mehatxu?*” izenburua duen lanagatik. Leizaran Institututik **Unai Santano** eta **Lander Duranek** osatutako bikoteak “*Pornografia, nerabeen sexu-hezitzaile bakarra*” lanagatik sarituak izan dira. Bi bikoteek 180 euroko diru-sari bana jaso dute.

Sari banaketa Andoaingo Gazte Lokalean egin da gaur eguerdian eta esku hartu dute, parte-hartzaileez eta ikastetxeetako ordezkariez gain, Maider Lainez Andoaingo alkateak, Alexander Huitzi Euskara Saileko zinegotziak eta ENBAko kideek. Urtero bezala, sari-emateak gonbidatu berezia izan du eta, honela, BERRIA egunkariko **Ainara Arratibel** kiroltako kazetariarekin solasaldia egiteko aukera izan dute oraingo honetan gaztetxoek. Harekin kazetariaren lanbideaz, bere erreportajeaz eta aurki Tokion jokatzekoak diren Olinpiar Jokoetan egingo duen lanaz hitz egin dute.

### 25 lan aurkeztu dira

Aurtengo edizioan *Erreportari Gaztea* sariketan 60 partaide egon dira, 15 eta 18 urte bitartekoak, eta 25 lan aurkeztu dituzte orotara. Gazteen artean euskarazko komunikazioa bultzatzea eta kazetaritzarekiko zaletasuna piztea dira lehiaketaren helburuak. Hala, Huitzi zinegotziak ekitaldian aurkeztutako lanen “maila altua” nabarmenduz, txalotu egin du kazetari gazteen lana eta halako sariketa batera aurkezteko izan duten nahia. Zinegotziaren iritziz “euskarak esparru anitzak bereganatu behar ditu, euskarazko kazetaritza edukiak sustatu behar dira, horretarako harrobi berriak trebatuz, espazio fisiko zein digitalean zabalduz”.

Halaber, Huitzik esker-on mezua luzatu die sariketari bultzada emateko inplikatu diren Aita Larramendi Ikastolako, La Salle-Berrozpe Ikastetxeko eta Leizaran Ikastetxeko irakasleei, haien “bultzada eta indarrak behar-beharrezkoak izan baitira lehiaketa aurrera ateratzeko orduan”. Epaimahaiko kideei ere eskerrak eman dizkie Huitzik. **Jone Larrañaga**, **Enekoitz Telleria** eta **Jon Ander Ubeda** kazetariak osatu dute aurtengo, hurrenez hurren.

Andoaingo, 2021eko ekainak 11.

## Gorka Amatria y Aitor Pulpon ganan este año el concurso 'XXIII. Erreportari Gaztea Saria'

*En el concurso de 2021 han participado 60 jóvenes de Andoaín y localidades cercanas, que han presentado un total de 25 trabajos.*

Tras el inevitable parón obligado por la pandemia, ha regresado el premio *Erreportari Gaztea Saria* que concede anualmente el departamento de Euskera del Ayuntamiento de Andoaín. **Gorka Amatria** y **Aitor Pulpon**, del colegio La Salle-Berrozpe, han sido los ganadores del premio principal. Esta pareja se ha hecho con el premio en metálico de 360 euros y el trofeo del artista Xabier Laka. El trabajo ganador, titulado como "*Twitch*", trata sobre la nueva red social y la revolución digital que ha provocado.

Junto al premio principal, se han realizado otras dos menciones especiales. Han recibido el premio **Markel Rabadán** y **Eñaut Landa**, del colegio Aita Larramendi por el trabajo titulado como "*Robotika industrial: onura ala mehatxu?*". El otro, para los alumnos del Instituto Leizaran, la pareja formada por **Unai Santano** y **Lander Durán** que han presentado su trabajo "*Pornografía, nerabeen sexu-hezitzaile bakarra*". Ambas parejas han recibido sendos premios de 180 euros.

La entrega de premios se ha celebrado este mediodía en el Gazte Lokala de Andoaín y han intervenido, además de los participantes y representantes de los centros escolares, la alcaldesa de Andoaín, Maider Lainez, el concejal del Departamento de Euskera, Alexander Huitzi, y miembros de ENBA. Como todos los años, la entrega de premios ha contado con un invitado especial, y así, las y los jóvenes escritores han podido charlar con la periodista deportiva **Ainara Arratibel**, del diario BERRIA. Junto a ella, se ha hablado sobre la profesión del periodista, de sus reportajes y del trabajo que va a realizar en breve en Tokio, en los Juegos Olímpicos que se disputan próximamente.

### 25 trabajos presentados

En esta edición han participado 60 personas, de entre 15 y 18 años, que han presentado un total de 25 trabajos. Los objetivos del concurso son fomentar la comunicación en euskera entre las personas jóvenes y fomentar la afición al periodismo. Así, el concejal Huitzi ha destacado en el acto el "alto nivel" de los trabajos presentados, ha aplaudido el trabajo de las y los jóvenes periodistas y su deseo de presentarse a un certamen así. En opinión del concejal "el euskera debe abarcar ámbitos múltiples, hay que fomentar los contenidos periodísticos en euskera, formando para ello a una nueva generación, ampliando el periodismo en euskera tanto en el espacio físico como digital".

Asimismo, Huitzi ha trasladado un mensaje de agradecimiento a las y los profesores de la Ikastola Aita Larramendi, del colegio La Salle-Berrozpe y Leizaran Ikastetxea que se han implicado para impulsar el certamen, ya que su "impulso y fortaleza han sido imprescindibles a la hora de sacar adelante el concurso". Huitzi también ha dado las gracias a los miembros del jurado. Los periodistas **Jone Larrañaga**, **Enekoitz Telleria** y **Jon Ander Ubeda** han formado este año, respectivamente.

Andoaín, 11 de junio de 2021.